

Abarak

Mikel Garcia

Gehiegi desitxuratutako errealitatea?

GASTEIZ prentsa-argazkilaritzaren hiriburu izan da oraintsu (hilaren 9ra arte), Periscopio urteroko erakusketa sorta interesgarriari esker. Arlo honetan munduko lehiaketa garrantzitsuen den World Press Photo-ren erakusketa izan da jaialdiaren oinarri, ohiko legez. 27 herrialdetako 62 argazkilariren lanak ikusi ahal izan dira, 5.500 parte-hartzailearen artean hautatuak. Gaurkotasunaren isla da erakusketa; eta aurten krisi irudiak izan dira nagusi.

Kontua da, argazkilaritza blogetan eztabaida sutua dagoela, World Press Photo lehiaketako epaimahaikideek hartu duten erabakiaren harira: aurkeztutako argazkiarekin batera, orijinala ere bidaltzea eskatuko dute hemendik aurrera, Photoshop-arekin gehiegi ukitua izan den jakiteko. Izan ere, Danimarkako Picture of The Year sari ezagunak harrotu ditu hautsak: lehenengo aldiz 35 urtetan hiru argazkiren orijinalak eskatu dituzte, eta eskuinean duzuen (goian orijinala) kanporatzea deliberatu dute, aldaketa handia dela iritzita. Egia esan, behekoan lurrikara jazo berri dela dirudi, baina Photoshop-arekin kontrastea,

intentsitatea, tonuak eta halakoak editatzea zilegi dela defendatu dute argazkilaritza-blogari askok, elementurik gehitu, kendu edo aldatu ez bada, ez dagoela manipulazioirik. Muga non dago ordea? Prentsa-kazetaritzari dagokionez, ez litza-teke batere ukitu beharko –hildakoen odola manipulatua izan dute egunkariaren batean, gorriago agertzeko-. Zerbait kontatzen eta transmititzen duen argazkia da ona kazetaritzan, ez kolore, argi eta teknika egokiena dituen –beste gauza bat da eremu artistikoan-.

Polemika puri-puri dago.



KEMEN LERTXUNDI
BIDE ERTZEAN
ESNE ZOPAK
UEK
PETTI & BARRENCE WHITFIELD
FLAKUTT
THE DIRTY PINK LADIES
NORMAN
MIKEL ANDONEGI
HOTSAK DANTZAN 2
JIMMY ARRABIT TRIO
MIKEL GAZTELURRUTIA
WWW.HOTSAK.COM